

# DIRU SARRERAK

Gure produktua egitea nahiko garestia izango da. Makulu lana egiteko egur ona aukeratuko dugu eta horrek dirua balioko du; horrez gaiz. kalefakzio txiki bat jartzeak ere diru nabaria suposatuko digu eta hori guztia gutxi izango balitz, oihal on eta seguruez egingo dugu aterkia.

Hiru objektu hauek lortzeko diru nahikoa gastatu egin beharko dugu, baina aterki bakoitzarekin 10€ lortzea pentsatzen dugunez, denborarekin ondo aterako zaigu.

Diru sarrera garrantzitsuenak publizitatearekin lortuko ditugu, baina hau jaso baino lehen, hainbat pertsona famatuei esango diegu gure produktua pixka bat saltzen saiatzea, honela dirua irabazten hasteko.

Horrez gain, erabilpenagatik hainbat sari ematen saiatuko gara. Adibidez, familia batean 4 aterki erosten badituzte, hurrengo dohainik ematea edo antzeko zerbait. Gainera, Black-friday eta horrelakoak aprobeztatuko ditugu negozio gehiago egiteko.

Hasieran diru kantitate handia jarri beharko dugunez, marka batzuekin kontratuak egiten saiatuko gara, gure partetik diru gutxiago jarri ahal izateko, bestela oso gogorra izango baita.

Beraz, galderari erantzunez, gure erosleak 44.95 € ordaintzeko prest daudela uste dugu, gure aterkiak hainbat alde positibo dituelako eta besteengatik desberdindu egiten delako.

.